

# GIZA ESKUBIDEAK, BAKEA ETA KONPONBIDEA

Besteak beste, euskal presoen defentsa eta ordezkaritza legala egiten duten abokatuak eta beste herritar batzuk atxilotzea ekarri zuen egindako polizia operazioak denboran atzera begira jarri gintuen atzo, Euskal Herrian bizi izan ditugun azken urteak debaldekoak izango balira bezala. Atzoko sarekada soberan zegoen, atxilotutako pertsonak errez aurkitzeko modukoak direlako, operazioa agindu duen epailearen disposizioan jarri zirelako eta bere lana Audientzia Nazionalean, espetxeetan eta ezagupen publikoko bulegoetan egiten dutelako.

Elementu eta ezaugarri zehatzak erraz atzeman daitezke polizia operazio honen atzean. Izaera erabat politikoa daukan polizia operazioa da, eta sarekadaren benetako helburuak ez daukala zerikusirik Espainiako gobernuak esaten eta baieztagen duenarekin.

Atxilotutako pertsonei eragiten dieten ondorio zuzenez gainera, era honetako ekinbideek behin eta berriro atzeratu dute herritar guztiei dagozkien oinarrizko eskubideak eta bermeak errespetatuak eta beteak izatea; egiazko demokrazia batean, eskubide eta berme horiek beste edozein interesen gainetik eta aurretik egon beharko lirateke.

Gero eta hedapen handiagoa duten eremu politikoak, juridikoak eta sozialak Espainiako Gobernuak indarrean daukan espetxe politika zalantzan jartzen duten unean iritsi dira atxiloketak. Elkartasun keinuak areagotzen doazen heinean, Estatuak kriminalizatu eta lapurtu ditu eta elkartasuna delitu bilakatu. PPREn gobernuak euskal presoei ezartzen dien sakabanaketa politikaren ondorioz indarrean jartzen dituen salbuespen neurriak gero eta zilegitasun gutxiago dute gizartean.

Espetxe politikaren aurka larunbatean eginiko mobilizazio erraldoiaren ostean gauzatu dira atxiloketa hauek. Gaur bertan, Espainiako Auzitegi Gorenak Frantziako estatuko espetxetan zigorra bete duten presoen zigorra luzatzeaz erabaki behar du eta, atzo ere, ezker abertzaleko 35 kideren aurkako epaiak zen abiatzekoa Audientzia Nazionalean, baina abokatuen atxiloketaren ostean atzeratu egin den epaiaketa.

Atxiloketa hauek eraso zuzena dira bake, askatasun eta demokrazia egoera bat sortzeko egiten ari diren ahaleginei eta egoera sozial eta politiko berriari.

Egoera berri horren aurka egitearekin tematua dagoen estatua dugu aurrez aurre. Espainiako Gobernuak giza eskubideak zein eskubide zibil eta politikoak urratzen dituzten politikak garatzen ditu, gatazkari zein bere ondorioen konponbideri lagundu beharrean.

Bada garaia herri hau Espainiako estatuak kondenatu nahi duen zurrubilotik ateratzeko; etorkizunari begiratzeko unea da, askatasunean, bakean eta demokrazian oinarrituko den etorkizuna eraikitzeko konpromisoak hartzekoa. Ez du denak balio. Ez gaude prest gure etorkizuna Espainiako Gobernuko agintari arduragabeen eskuetan uzteko. Euskal herritarrok bakean, demokrazian eta askatasunean bizi nahi dugula erabaki dugu. Atera gaitezen zurrubilotik.

Horregatik, bertan bildu garen eragile politiko, sozial eta sindikalok honako deialdia egiten dugu:  
**Larunbat honetan arratsaldeko 17:00etan Donostia Antiguako tuneletik**

# DERECHOS HUMANOS, PAZ Y RESOLUCIÓN

Ayer otra operación policial que ha supuesto la detención de 16 personas, entre ellas, numerosos y numerosas abogadas que ejercen su profesión representando y defendiendo a presas y presos vascos, nos hizo retroceder en el tiempo como si los últimos años en Euskal Herria hubieran pasado en balde. La redada de ayer era totalmente prescindible si tenemos en cuenta que detuvieron personas perfectamente localizables, que se habían puesto a disposición del juez que ha ordenado las detenciones y que desarrollan su trabajo en la Audiencia Nacional, en cárceles y en despachos de conocimiento público.

Una vez más, tras esta operación policial volvemos a percibir circunstancias y elementos que hacen entrever razones de índole política y que nos hacen sospechar que su verdadero objetivo poco o nada tiene que ver con lo manifestado por el Gobierno español.

Además de las consecuencias directas sobre las personas detenidas, estas actuaciones en su reiteración, han arrasado una y otra vez con derechos y garantías fundamentales que debieran proteger a toda la ciudadanía y que, en una auténtica democracia, debieran estar aseguradas por encima de intereses de otro tipo.

Las detenciones suceden en un momento en que la política penitenciaria del Gobierno de España está fuertemente cuestionada desde ámbitos políticos, jurídicos y sociales cada vez más extensos. A medida que se van incrementando los gestos de solidaridad, el Estado los criminaliza y los convierte en delito. Se está generando una deslegitimación creciente para con las medidas de excepción que se empeña en aplicar el gobierno del PP contra los presos y presas vascas sometidas a la dispersión.

Se producen también después de que el sábado decenas de miles de personas se movilizaran contra la política penitenciaria. Hoy mismo el Tribunal Supremo español decidirá sobre la excarcelación de numerosas personas que ya han cumplido la pena en el Estado francés, y el mismo día en el que comenzaba la Audiencia Nacional el juicio contra 35 militantes de la izquierda abertzale, quienes, entre otras cosas, se han quedado sin abogados y abogadas tras las detenciones.

Estas operaciones agrede directamente a una nueva situación política y social en la que se están realizando importantes esfuerzos para impulsar y hacer realidad un escenario de paz, libertad y democracia.

Frente a ello, encontramos a un Estado empeñado en lo contrario, un Gobierno que refuerza estrategias que en sí mismas suponen la vulneración de derechos humanos, civiles y políticos en lugar de aportar y asumir responsabilidades para desbrozar y consolidar un camino que conduzca a la superación del conflicto y sus consecuencias.

Es el momento de que este Pueblo salga de la espiral a la que pretende tenerle atado el Estado español, es el momento de mirar adelante, de comprometerse y dar pasos para avanzar hacia un futuro en paz, libertad y democracia. No todo vale y no estamos dispuestas a entregar nuestro futuro a los irresponsables políticos del Gobierno español. Los y las ciudadanas de Euskal

Herria ya hemos decidido que queremos vivir en paz, democracia y libertad. Hagámoslo realidad. Salgamos de la espiral.

Por eso, los agentes políticos, sociales y sindicales presentes en esta rueda de prensa llamamos a la movilización que el **próximo sábado a las 17:00 horas tendrá lugar desde el túnel del Antiguo en Donostia**.

**04/08 EPAIKETAREN KIDEOK•ABOKATUAK•AHT ELKARLANA• ALTERNATIBA•ARALAR•BILGUNE FEMINISTA  
•CGT-LKN EUSKAL HERRIA•CNT•EA•EGIARI ZOR•EHE•EHNE•ELA•ERAIKI ARALAR•ERNAI•ESAIT•ESK•STEILAS•ETXERAT  
•EZKER GOGOA•GAZTE ABERTZALEAK•GITE-IPES•GOLDATU•HIRU•IKASLE ABERTZALEAK•LAB•LOKARRI•SORTU**